

**EUSKADIKO AUZITEGI NAGUSIAK LHK/CRLren BERRITZE-
PROZESUAREN INGURUAN EMANDAKO EPAIAZ ELAk EGITEN
DUEN BALORAZIOA**

2011ko ekainaren 22

0- SARRERA

2006ko urriaren 2an ELAk “Lan Harremanen Kontseiluan zuen parte-hartzea era mugagabea etetea” erabaki zuen.

ELAk bere erabakia Lan Harremanen Kontseiluari jakinarazi zion. 2007an, erakundea berritzeko momentua iritsi zenean, EAEn lortutako ordezkartzagatik legez ELAri zegozkion hiru eserlekuak hutsik utzi ziren. Era horretan, LHKren alde sindikala osatzen duten zazpi postuetatik lau bakarrik bete ziren (2 CCOO, 1 LAB y 1 UGT).

LHKko kideak bi urtero berritzen dira eta, beraz, hurrengo berritze-prozesua 2009an gertatu zen. Ordurako, EAeko gobernuan Euskadiko Alderdi Sozialista zegoen. ELAK erakundean zuen parte-hartzea eteteko arrazoiak berdin zirautea ulertu eta, bigarren aldiz, zegozkion hiru kideak izendatzeari uko egin zion.

LHKko presidenteak ELAri jakinarazi zionez, berritze-prozesuaren baitan, Kontseiluko hainbat kidek erakunde batek bere ordezkartzaaren arabera legez dagozkion izendapenak ez egiteak izango lituzkeen ondorioei buruzko txosten tekniko bat eskatu zioten.

LHKren zerbitzu juridikoek burututako txostenaren arabera, ELAk izendapenak egiteari uko egiteak gainerako sindikatuak kide gehiago izendatzeko, ordezkartza handitzeko eta legez ELAri zegozkion postuak betetzeko eskubidea dakar. LHKko presidenteak Kontseiluan ordezkartza zuen gainerako sindikatu bakoitzari kide bat gehiago izendatzeko eskatu zion. CCOO nahiz UGTk beste kide bana izendatu zuten eta LABek izendapen hori egiteari uko egin zion.

Lehendakariak, legez izendapenak burutzeko ardura izanik, LHKko kideak beren kargutik kendu eta kide berriak izendatzeko Dekretua sinatu zuen. Bertan, sindikatuetatik sei ordezkari besterik ez ziren izendatu: 3 CCOO (22,30%), 2 UGT (14,60%) y 1 LAB (18,54%)

ELAk Lehendakariaren Dekretua LHKren Legearen zein Erregelamenduaren aurkakoa zela ulertu eta haren aurkako demanda aurkeztu zuen.

I- EPAIAREN ALDERDI NAGUSIAK

2011ko maiatzaren 20an, Euskadiko Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak Lehendakariak eta LHKk erakundearen berritze-prozesuan izandako jokaera legearen aurkakoa dela dioen epaia eman zuen (365/2011 epaia).

Epaia dioenaren arabera, LHKren alde sindikaleko kide berriak izendatzen dituen Dekretuaren artikulua deuseza edo nulua da, Kontseiluaren Legearen nahiz Funtzionamendu-erregelamenduaren aurkakoak diren izendapenak burutzen dituelako. Auzitegiaren arabera, erakundearen berritze-prozesua berriro hasi beharra dago, ELArenak diren postuak betetzen ez dituzten izendapenak eginez.

Sententzia luze nahiz zehatza da eta berritze-prozesua zein indarrean dagoen legedia era zorrotzean aztertzen ditu. Auzitegiak Dekretua legearen aurkakoa dela ondorioztatzen du, Legearen nahiz Erregelamenduaren oinarrian dauden proportzionaltasun eta boto haztatu printzipioak urratzen dituelako. Dekretua arauaren funtsaren aurkakoa ere bada, funts horretan baitago LHK EAEko ordezkartza sindikalaren ispilu izatea.

Ondorioz, EAEko Auzitegi Nagusiaren epaia zuzentzen duen tesia hurrengo baieztapenetan laburtu daiteke:

1. LHKko kideak beren kargutik kendu eta kide berriak izendatzeko Dekretua LHKren Lege eta Erregelamenduaren aurkakoa da eta, beraz, ilegala.

“debe concluirse que el procedimiento y resultado obtenidos por el presidente del Consejo son contrarias al ordenamiento jurídico”

2. Dekretuak proportzionaltasun printzipioa urratzen du.

“Por lo tanto la consecuencia es clara: a igual representatividad y audiencia sindical que en anteriores renovaciones, designación de los ya miembros”

“una consecuencia: la norma no quiere la expulsión institucional del sindicato que no atiende al requerimiento, ni confiere derecho de los otros sindicatos a acrecer sobre los puestos cuyos representantes no han sido designados, antes bien, quiere que se respete no solo su proporcionalidad sino que asienta la presunción de que el sindicato tiene la misma voluntad que en ocasiones anteriores de renovación”

“...lo correcto sería acudir al fundamento, a la ratio iuris, de la norma que contempla el supuesto regulado, para, una vez verificada la identidad de razón, aplicar una solución coherente con ella (que, como se razonó supra, aquí consiste en respetar la proporcionalidad y mantener la representación del sindicato que se abstiene de designar)”

“Pero es que la ratio es la misma: mantener un reflejo fiel de la representatividad sindical del CRL. Y la única manera de hacerlo es o bien designar numéricamente los representantes de ELA o bien acudiendo a los de 2005 para, en la medida de lo posible, integrar la propuesta con esos nombres. Hacer algo jurídicamente tan distante de estas propuestas como la oferta de los puestos a otros sindicatos contraviene los principios no sólo de la DA sino, sobre todo de su fuente de justificación: la Ley, tanto por la proporcionalidad como por el voto ponderado. Y ello no puede ser avalado por el Tribunal, por lo que se rechaza este argumento”

3. Dekretuak boto haztatu printzipioa urratzen du.

“Para paliar esto en el funcionamiento ordinario y mantener el más fiel reflejo posible de la audiencia sindical, se establece el voto ponderado, para que

cada uno de los representantes tenga un porcentaje que realmente responda a la representatividad del sindicato por el que está en el Consejo.

Ello quiere decir que aunque el sindicato ELA no comparezca a las sesiones o incluso aunque se declarase la validez del nombramiento...los problemas de bloqueo en cuanto a las votaciones, si es que existen, seguirían existiendo, porque los sindicatos representados, por más que ocupen los siete puestos (ni eso, que con el Decreto actual son seis) nunca podrían ostentar, teniendo en cuenta este precepto, más del 55,46% del voto total (perteneciendo a ELA el restante, aunque no tenga representantes) pues ello es lo que impone el art. 8.3ª) de la Ley. Formular, tal como pretende la administración demandada un escenario en que el voto ponderado obviase la audiencia electoral y se computase únicamente sobre los efectivamente designados en el Decreto violentaría directamente este precepto legal, además de oponerse, aun más frontalmente, al principio de proporcionalidad que establece el art. 4.3., por lo que tal solución no debe admitirse”

Epaiak ELAren iritziz eragin politiko handia duten hainbat gogoeta jasotzen ditu:

“La conclusión...es clara: la institución quiso establecer una norma que previese el supuesto del sindicato que no responda al requerimiento, y ello sin importar el motivo de la no designación (desidia o estrategia política)”

“la conclusión es clara: el reglamento quiere que quien no efectúa designación de representantes siga manteniendo su presencia en el Consejo aunque no ejercite esa facultad, y para facilitar ello provee un sistema que pretende mantener es status quo sindical en el Consejo en la medida de lo posible”

“nada autoriza al Lehendakari a refrendar una decisión contraria al ordenamiento jurídico”

“Los informes que sirvieron de soporte parcial a la decisión del presidente valoraron erróneamente el alcance de la DA única del Reglamento, cuando concluyeron que ésta no era de aplicación...”

“...habiendo una norma que regula el supuesto de hecho, no tenemos nosotros autorización para apartarnos de la solución normativa aportada”

“Ante esto tenemos la opción de integrar ese vacío teniendo en cuenta el contexto de la norma o acudir a una solución completamente al margen del mecanismo previsto en el reglamento. Esto último es lo que hizo la presidencia del Consejo: ofrecer las vacantes a los demás sindicatos representados en el Consejo”

“Su interpretación [Decreto impugnado] consistente en que la no designación equivale a la renuncia al derecho de participación o representación institucional, no puede admitirse... en este sentido traer al proceso documentos políticos del sindicato, como hacen los demandados, es irrelevante, pues ello ni tiene correspondencia con una posición procesal ni

asegura su posición continuada en relación al litigio, ni evidencia una posición de renuncia al derecho”

“ni la Ley ni El Decreto ni ninguna otra norma avalan una solución tan dispar a la recogida en las normas de referencia para este litigio como el ofrecimiento de los puestos a los otros sindicatos, que se hace sin la más mínima justificación normativa”.

Epaia ez da irmoa eta Auzitegi Gorenean kasazio-errekurtsoa aurkezteko aukera dago.

II- ONDORIOAK

1. ELAren ordezkariaren usurpazioa politikoki onartezina izateaz gain, legearen aurkakoa ere bada

Argi geratu da ELA ez zegoela oker Lehendakariari bere ordezkaritza “usurpatzea” leporatu zionean. ELAren ordezkaritza beste sindikatu batzuei ematea eremu sindikalean eta lan-harremanen esparruan bizirik behar duten joko-arau demokratikoen aurka egiten duen erabaki politikoa da.

Horrez gain, epaiak diotenaren arabera, erabakia ilegala ere bada.

2. Eusko Jaurlaritza akonpainamendu edo laguntza sindikalgintzari, hau da, bere politikari babesa ematen dionari mesede egiten saiatzen da

Eusko Jaurlaritzak gizarte eta lan-erakundeen funtzionamendu hobe baterako neurri gisa saldu ziguna ez zen ELAren aurkako beste zigor bat baino, Lakuako proiektuarekin eta izena eraman arren benetako Elkarrizketa Sozialik garatzen ez duen mahaiak ezarritakoarekin ados ez egoteagatik ezarritako zigorra hain zuzen ere.

Horregatik, Euskadiko Gizarte nahiz Ekonomia arazoetarako Batzordean (CES) edo Lan Harremanen Kontseiluan (LHK) ordezkaritza usurpatzea ez da kasualitatea, kasualitate ez den modura lan-politika aktiboen edo lan segurtasun eta osasunaren jarraipena Elkarrizketa Sozialerako Mahaira eramatea (parte-hartzaileak finantzatuz), Gobernuaren politikoak aurrera eramateko gutxiengo sindikalaren babesa bilatu eta aurkituz.

3. ELAk erantzukizun politikoa argitu dadin eta LHKn benetako ordezkaritza sindikala errespetatzen duen izendapenak egitea exijitzen du

LHKren berritze-prozesua, Patxi Lopez Lehendakariak Confebask, CCOO, UGT eta LHKren presidentearekin adostutakoa, legearen aurkakoa edo ilegala dela adierazi du Auzitegi batek.

ELAk erantzukizun politikoak argitzea eta epaiak diotenak LHKko izendapenetan berehalako eragina izatea exijitzen du. Benetako ordezkaritza sindikala errespetatuko duten izendapen berriak egin beharko dira.

4. ELAk Euskadiko Gizarte nahiz Ekonomia arazoetarako Batzordearen (CES) eta Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) Lege berrietarako aurreproiektuak erretiratzea exijitzen du

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Gizarte nahiz Ekonomia arazoetarako Batzordearen (CES) eta Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) Lege berrietarako aurreproiektuak aurkeztu ditu. Bertan, Legea aldatu egiten da Eusko Jaurlaritzaren politikari babesa emateko asmoz.

Gobernua sindikatu batzuen ordezkaritza beste batzuei emateak suposatzen duen zentzugabekeria politikoa eta askatasun sindikalaren aurkako erasoak babesteko jantzi juridikoa bilatzen ari da. Gobernuak jakin bazekien bere jokaera ez duela egun indarrean dagoen legediak babesten eta horregatik, Gobernuaren aurreproiektuek berariaz jasotzen dute sindikatuek euren ordezkaritza handitzeko eskubidea, beste sindikaturen batek dagozkion ordezkariak izendatzen ez dituenean.

ELAk aurreproiektu horiek erretiratzea exijitzen du. Parte-hartze instituzionalerako organoetan sindikatuek izango duten parte-hartzea arautzeko modua gehiengo sindikalarekin adostu beharreko kontua da. Eta hori ez da gaur arte gertatu.